

Inkomunikatuta espetxeratu dituzte Noainen atxilotutako bi gazteak

«Terrorismoa eta hilketa saioa» leporatu die Entzutege Nazionaleko epaileak

Irene Arrizurieta / Iruñea

Noingo UPNko zinegotzi baten aurka lehergailua jartzea leporatuta asteartean Guardia Zibilak atxilotutako bi gazteak kartzelatu ditu Entzutege Nazionaleko epaile Teresa Palaciosek. Bi gazteak Valdemoroko espetxean daude, «terrorismoa eta hilketa saioa» egiteaz akusatuta. Biak «torturak eta tratu txarrak» salatu dituzte.

TERESA PALACIOS Espainiako Entzutege Nazionaleko epaileak, «terrorismoa eta hilketa saioa» leporatuta, Madrilgo Valdemoroko espetxean kartzelatu ditu Noingo Jon Erro Espinal eta Miguel Angel Llamas, 18 urteko gazteak. Bi mutilak joan den asteartean Noainen udal biltzar berezia egin ari zenean atxilotu zituen Guardia Zibilak, azken asteotan Nafarroan UPNko zinegotzien aurka gertatutako erasoekin zerikusia dutelakoan. Bata, herriko industrialdean beharrean zegoela harrapatu zuten, eta bestea, berriz, etxean, gaztearen sotoa miatu eta presoan aldeko pankartak atzeman eta gero.

Jakina denez, Jose Maria Marco UPNko zinegotziaren etxeko atean bi bonbonaz eta petardo osatutako lehergailuak eztanda egin zuen iragan astelehenean. Hori dela eta, herriko giroa gaiztotu



Guardia Zibila iragan asteartean Noingo gazteetako bat atxilotzen.

INAKE VERGARA

egin da, eta Julian Arranz alderdi erregionalistako alka-teak udal biltzar berezira deitu zuen astearterako. Bertan, Marcok eta Julian Arranz Sanchez alderdi bereko kideak zinegotzi postua utzi zuten, «arrazoi pertsonalak» argudiatuz.

Torturak eta tratu txarrak

Bi gazteak atxilotu zituzten gau berean eraman zituzten Madrilera, eta atzo goizean epailearen aurrean deklaratu arte inkomunikatuta egon dira Guardia Zibilaren egoitzan.

Amnistiaren Aldeko Batzordeetatik adierazi dutenez, Errori eta Llamasi ez zaie «konfiantzako abokatu baten laguntza izaten utzi». Era

berean, bi gazteak epaileari Guardia Zibilak leporatu dien delitua jazo zenean eurak ez zeudela bertan argudiatuko luketen lekukoak eta gertarak badituztela aipatu arren, Palaciosek ez ditu bi nafarren esanak aintzat hartu, eta Valdemoroko espetxean kartzelatu ditu.

Noingo bi espetxeratuak egon diren egunotan «torturak eta tratu txarrak» jasan izana salatu zuten atzo, baina Amnistiaren Aldeko Batzordeen arabera, «torturak epaitzea ez zela bere egitekoa» erantzun omen zien epaileak.

Ildo beretik, EHk prentsa ohar baten bidez kartzelaratzeak gaitzetsi ditu, eta gaineratu du oraingoan ere «argi geratu dela zein den biktima eta borroroa».

Jon Bienzobas, Argi Perurena eta Patxi Segurola preso sartu ditu epaileak

■ Mirentxu Gimón gaur pasako da Laurence Levert Parisko epailearen aitzinetik

Hur Gorostiaga / Baiona

LAURENCE LEVERT epaileak Jon Bienzobas, Argi Perurena eta Patxi Segurola euskal herritarren presondegira-tzea agindu zuen atzo, Yolanda Molina abokatua bertan zelarrik epailearekin izan zuten agerraldiaren ondoren. Hiruiek irailaren 28ko Britainiako lapurretarekin zerikusirik izatea ukatu dute.

Argi Perurena Fresneseko presondegira itzuli eta bakar-turik ezarri dutela salatu zuen Yolanda Molina aboka-

tuak atzo EGUNKARIAri egindako adierazpenetan. Bakarturik egoteak pertsona ororekiko kontaktua debekatu izatea dakar. Presoen familiarrek behin eta berriz salatu izan dituzte Fresneseko bizi-baldintzak. Segurola La Santera eta Bienzobas Fleuryra eraman zituzten. Azken hori euskal preso bakarra da presondegiko bere dibisioan.

Mirentxu Gimón, urriaren 4an atxilotu zuten hendaia-rra, gaur pasako da Laurence Levert epailearen aitzinetik.

Polizia iturrien arabera, Jimmy Arrabit operazio berean atxilotutakoarekin zerikusia izatea leporatzen diote. Hain zuzen ere, Arrabitekin elkartasuna agertu dute Esan Ozenki disketxeko 19 kide eta musika taldek, «errepresioa bidea ez» dela azpimarraturik. Martxoan Kashbad taldeko Gorka Lazkano atxilotu eta egundaino preso dela oroitarazi dute. «Zerbait zapaldua duenak soilik sendi dezake kate hesturen herdoila» adierazi dute Esan Ozenkikoek.


Estatutuarekin eta EHrekin haustea «atzerapauso bat» litzatekeela dio Ibarretxek

Agentziak / Gasteiz

JUAN JOSE IBARRETXE EAEko lehendakariak atzo adierazi zuenez, «atzerapauso bat» litzateke EHrekin eginiko akordioa puskatzea eta Estatutuarekin apurtzea. «Hogei urteotan edo azken hamar hilabeteetan eginiko bidea apurtzeko tentazioa gainditu behar dugu. Izan ere, badakigu atzean zer utzi dugun, eta niri, lehendakari naizen aldetik, ez zitzaidan askorik gustatzen», gaineratu zuen. Bestalde, urteotan eginiko kaltea onartu behar dela adierazi zuen EAEko lehendakariak, «ez dadin errepika iraganean gertatutakoa».

ENATEL'99

ENE GI EN, U EN ET
TELEK MUNIK ZI EN LEHEN
LEHI KET INTEG L



E E GL L EN FIGU
ZE ITZU U LIK EN
H NIKUNTZ N, ET H EN
E OIN K STUEN U EZ ENE N

L h k t r k n t r z n r n s t r u r t z u k

EN TEL
I EI S IKET
En r, U r t k m n k z n
H n k u n t z n i n t z r k
K n n u r z k s n u
k t t n u r z n u

N Z r k K n r s u
EU K I I L E I S N F
H z l i k s t r s z l z u k t s
r k n k u n z t k l k r n t z n
z k t n z r k E n s E l k r k
t k x k u r n n d h z r k r.

z r n t l z l Eusk It I IDENDROLA
EVE

INTE N C I N L N Z I TEK
E I L E K U S T Z K

IL - T I . 2 5 - F x 2 2 2 2
m c //www.f r n c l . s • m l l f r n c l . s